

Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Ekuadorreko eta Europako *señoritoak*

dorre Bikien kontrako erasoan hamasei ekuadortar hil zituzten. Madrilgo trenen atentatuetan lau. Barajasen bi. Emigrazioak sortutako tragediaren adierazle gordinak dira hogeitabi hildakook, globalizazioak gizartea nola aldatu duen erakusgarri.

Ez ziren helburu, baina larrutik ordaindu zuten gobernuei min egiteko kalean eraso egiten dutenen krudelkeria.

Gure arazo madarikatuak bete-betean harrapatu ditu Ekuadorreko bi familia. Kolpe latza eman die Euskal Herria existitzen denik ere ez dakitenei.

Bi mutilen herriak bisitatu ditut, senitartekoekin eta lagunekin berba egin dut, zer pentsatzen duten eta nola bizi diren jakin nahian.

Emigrazioak zeharo markutako herrialdea da Ekuador. Hego Amerikako emigrazio tasarik txikiena izatetik, munduko handienara pasa da hamar urtetan.

Krisi ekonomikoak, 2000. urteko dolarizazioak eta gora-behera politikoek —hamar presidente hamar urtetan— parekorik ez daukan exodoa eragin dute. Lau milioi ekuadortar bizi dira



DANI BLANCO

Europar eta Ameriketako Estatu Batuetan, hogeita bi mila Hego Euskal Herrian.

Etorkinak bidaltzen duten dirua da aberastasunik handiena, petrolioaren atzetik. Horri esker bizi dira milaka eta milaka familia, atzerriko dibisek eutsi ahal izan diote dolarizazioak ekarri duen estualdiari.

Arazoa da diru hori kontsumorako erabiltzen dela gehien, ez produkzioa edo ekimen berriak bultzatzeko. Ez dira bankuekin fidatzen. Duela hamar urteko krak finantzieroak zauri sakona eragin zuen, eta nahiago dute dirua ondasunetan gastatu; etxeetan, autoetan, tresna elektrikoetan...

Jendea larri dabil. Hilean 150 eta 300 dolar artekoa da batez besteko soldata. 500 dolar irabaztea gutxi batzuen luxua da.

Euskal Herriaz galdetuta, erantzunik ez Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio familien etxeetan. Batzuetan isiltasunak mila hitz baino gehiago esaten du.

150 dolarreko soldaten herrialdean ez daukate Europa urruneko *señoritoen* gatazketan pentsatzen jarduteko pribilegiarik. Nahikoa daukate egunerokoari aurre egiten. **n**

«
Ez dut behin ere konfidantzarik izan
armadetan, are gutiago, kaboez beren
burua jeneral egiten dutelarik.
Euskal Herrian baizik ez da
horrelakorik ikusten
»

TXANDAN

Sustrai Colina

Heldu



Beti geratuko zaigu Paris. Paris eta bere auzuneak. Eiffel dorretik ikusten ez

direnak eta Eliseoak polizia kopuruaren araberak sailkatzen dituenak. Grafitiz betetako hormak, seriean eraikitako blokeak, metrorik gabeko kilometroak, kartzela gainezkatuak, fabrika hutsak. Beti geratuko dira istiluak auzune burges eta proletarioak bereizteko, oihalak eta trapuak ez nahasteko. *Liberté, égalité, fraternité*, baina frantsesak eta frantsesak daude, *mon frère*. Ez konparatu Neully-ko ministroaren semea eta Bobigny-ko hirugarren belaunaldiko *ritala*. Jatorri jatorrak dakar

labela, labelak kalitatea. Hortik aurrera, *ritalak rital* eta txakurrak oinutsik.

AEK-k ere oinutsik egingo du korrika. Ez zaio itzali ministroaren semea eta *ritala* euskalduntzeko irrika. Neullytik Bobignyra joaten ez direnak eraman nahi lituzke Karrantzatik Iruñera. Gure euskaldun zahar-euskaldun berri bereizketak ez dio askorik laguntzen, ordea. Heldu beharko diogu horri ere.

Ezagutzen duzue espainol zahar edo frantses berririk?

Tira, beti geratuko zaigu Paris. **n**